



SK RAPID KONZEPTUA

■ SPORTKLUB RAPID KOMUNITATE BAT DA.

Gure lotura legendarioek, familien, bizilagunen eta langileen arteko elkartasuna errotu dute. Orduz geroztik, berdea eta zuria koloreak batzen gaituzte. Arrakastak Viena eta Austriako talderik hoberena izateak ekarri digu. Gure artean dagoen batasun hau zaintzeko asmoz, guk, Rapidlerrok, berdintasunarekin, konfiantzarekin eta zintzotasunarekin jokatzeko dugu.

■ SK RAPID-EK BALIO TRADIZIONALAK ADIERAZTEN DITU.

Gure izena „Sportklub Rapid” da eta horrela deitzen jarraituko da. Gure koloreak berdea eta zuria dira eta horiek izaten jarraituko dira. Gure armarria aldaezina da. Betidanik borrokatu dugu gure energia guztiekin arrakasta lortzeko eta ez dugu inoiz amore ematen. Rapid-ren “Ordu laurdena” gure garaipen gogoak adierazten du. Baloreekin eta konfiantzaz jokatzeko dugu. Talde bezala gogo handia dugu erasoan, dinamikoak gara eta bide zuzena hartzen dugu beti gure helmugara heltzeko. Gure aurkariekin gogorrak gara, baina justuak eta beti errespetutsu. Garai onetan nahiz txarretan grinatsuak gara, eta harro gaude norberekeririk barik Rapid-ren onura laguntzeaz.

■ HÜTTELDORF DA SK RAPID-REN ETXEA.

Hemen hazi ginen. Hemen taupa egiten du gure klubaren kulturaren bihotza. Viena gure hiria da. Markatzen gaitu eta guk irudikatzen dugu. Horrez gain, Austrian etxean gaude, herrialdeko talderik garrantzitsuena gara eta bere mugetatik harago izen handia dugu .

■ SK RAPID ZABALA DA.

Giza aniztasuna da eta izango da gure arrakasta motorra. Hori dela eta, eta gure ardura sozialagatik, edozein pertsona, Rapid-ren ongizatearen onuraz pentsatzen eta jokatzeko duena, Rapidler bat izan ahal da. Ez dio axola sexua, jatorria, giza-maila ezta bizimodua. Gure jatorria langile-mugimendu bezala, modu bereziz giza-maila baxuenak laguntzea derrigortzen gaitu.

■ SK RAPID AUSTRIAKO TXAPELDUN ERREKORRA DA.

Arrakasta legatua eta agindua da guretzako. Horregatik, gure helburua beti goialdean egotea da. Ez dio axola zein lehiaketa den edo non jokatzeko dugun, gure desira irabaztea da. Lan hori betetzeko, ekonomikoki solido jokatzeko dugu, modu inobatzailez eta ikuspegi zabalarekin. Horretarako, gure independentzia onik baliotsuena da. Horri esker, gure baloreei leialtasuna mantendu ahal diegu eta Rapid-lerren hurrengo belaunaldiak transmititu. Horrekin ziurtatzen da borrokatzearen eta irabaztearen desio komuna, beti bizirik jarraituko duena Rapid-ren espirituari.